

54E/2026 Ebazpena, abuztuaren 5ekoa , Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, "Euskarazko hedabideen berrikuntza eta digitalizaziorako proiektuetarako 2026rako laguntzen deialdia ebazten duena.

ERREFERENTZIA:	Espediente zenbakia: 0011-4635-2026-000000
KUDEAKETA UNITATEA:	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskara Sustatzeko Atala Telefonoa: 848 423224 Helbidea: Paulino Caballero kalea, 13, 31002 Iruña Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es
Deialdia: Araudia: Eskaerak egiteko epea:	Euskarazko hedabideetan berrikuntza eta digitalizaziorako proiektuetarako laguntzak, 2026. urterako. 33E/2026 Foru Agindua, 2026ko apirilaren 15ekoa 2026/05/20 - 2026/06/18

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariak 2026ko apirilaren 15ean emandako 33E/2026 Foru Aginduaren bidez onetsi zen Euskarazko hedabideetan berrikuntza eta digitalizaziorako proiektuetarako 2026.urterako laguntzen deialdia.

Uztailaren 29an Balorazio Batzorde Teknikoa bildu zen jasotako eskaerak ebaluatzeko. Guztira 9 eskaera izapidetu dira eta 9 ontzat eman dira, baldintza administratibo eta teknikoak betetzen dituztelako.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak proposamen txostena aurkeztu du 2026. urteko deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten 9 eskaerei laguntzak emateko.

Hala, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023, Foru Dekretuak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearekin bat:

EBATZI DUT:

1. Eskatutako laguntzak ematea honako taula honetan jasotzen diren onuradunei, 115.000,00 euroko zenbatekoarekin, B30002 7709 334103 partidaren kargura eta 16.000,00 euroko zenbatekoarekin, B30002 B3200 4709 334100 partidaren kargura:

Espediente zenbakia	IFZ	Izena	Aurrekontu partida	Urtea	Zenbatekoa
0011-4635-2026-000001	B71304455	ABIAN MEDIA S.L.	G/B30002/7709/334103	2026	14.112,30
0011-4635-2026-000002	G31595473	FUNDACION TTIPI-TTAPA	G/B30002/7709/334103	2026	14.742,90
0011-4635-2026-000003	G31595473	FUNDACION TTIPI-TTAPA	G/B30002/4709/334100	2026	3.000,00
0011-4635-2026-000004	A01418565	NAFAR IKUSENTZUNEZKOAK SA	G/B30002/4709/334100	2026	10.000,00



0011-4635-2026-000005	A01418565	NAFAR IKUSENTZUNEZKOAK SA	G/B30002/7709/334103	2026	24.961,60
0011-4635-2026-000006	G31736077	ASOCIACION CULTURAL MAILOPE	G/B30002/7709/334103	2026	11.183,20
0011-4635-2026-000007	G71367825	EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA	G/B30002/7709/334103	2026	25.000,00
0011-4635-2026-000008	G31981509	GUAIXE FUNDAZIOA	G/B30002/4709/334100	2026	3.000,00
0011-4635-2026-000009	G31981509	GUAIXE FUNDAZIOA	G/B30002/7709/334103	2026	25.000,00

2. Esleipen-ebazpena eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, emandako laguntzaren zenbatekoa eta zehaztapenak jasoko dituen eranskinarekin batera. Laguntza ukatzen bada, arrazoiak adieraziko dira.

3. Baimendutako laguntza osoa (25.000 euro) esleitu ez denez, “Euskarazko hedabideetan berrikuntza eta digitalizaziorako proiektuetarako laguntzak” izeneko B30002 B3200 4709 334100 partidatik 9.000,00 euro libratzea, partida erabilgarrian jasota gera daitezen.

4. Ebazpena ondorengoei igorriko zaie: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu-hartzailetza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Administrazio eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kontablara, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideko Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administrazioaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

5. Laguntza eman dela jakinarazten denetik zenbatzen hasita, hilabeteko epean, deialdiaren 16. oinarrian jasotako gardentasun-betebeharra duten erakunde onuradunek oinarri horretan adierazten den informazioa jakinarazi beharko dute. Deialdia izapideen fitxatik egingo dute. Gardentasun-betebeharrik ez badu, adierazpen bat aurkeztu beharko du.

6. 30.000 eurotik gorako dirulaguntzak lortzen direnean, ordainketa-epeak bete direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte 3.2 oinarriarekin bat. Hilabeteko epea izango dute laguntza eman dela jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

7. Ebazpen honek ez dio amaiera administratiborik ematen administrazio bideari, eta honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Iruñean, 2026ko abuztuaren 5ean.

EUSKARABIDEA- EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga



CSV: **5EC411BBB732FC5**

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-06 14:30:58